

Manuel Lekuona

Iragan maiatzaren 21ean Gipuzkoako Diputazioak, probintziako seme kuttun izendatu zuen Manuel Lekuona jauna, urrezko domina eskainiaz, eta handik bi egunera, maiatzaren 23an, Eusko Ikaskuntza omenaldi berezi bat eskaini zion dula hirurogeta bost urte erakundearen sortzaile-etakoa izan zelako.

Goraipatze horiek ondo mereziak zituen don Manuelek urteak zehar, edo hobeto esan bere bizitza guztiaren zehar, gure herri honen kultur lanetan eten gabe aritu denez. Beraz, gaurkoan, dei horri dagokion erantzuna eskaini nahi diot erarik zintzoenean, aspaldiko adiskidetasunez zor diodalako.

1894. urteko otsailaren 9an sortu zen Oiarzun eta apaizgotzarako bidea hartu zuenari ere, J.M. Barandiaran eta kideko batzugin bateratu, ordurarteke apezken joarak errezepatu bazituzten ere, bide berri idetziaile bihurtu ziren beren apezgoa bete behar zuten herriaren kultura sakonago aztertuz eta gehiengoei begira bere izatetikoa adierazi, hedatu, gogo berritu, kurgintzarako lozorroan zegoen herria berpiztu.

Don Manuel, bereziki, Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetarikoa ez ezik, 1924. urtean Gastiako Mintegian Kardaberaz Akademiaren sortzaile izan zen, apezka euskara sakonago ezagutu eta idatzi zezaten. Geroztik, udarako galdak, neguko izotzak eta gizarteko ekaitzak gorabehera, gazterik hartu zuten bideari zintzo jarraitu zion, herri baten ehuna iruten, kulturaren jantzigarri. Herri literatura bilketa eta ikerketak eta historia ikerketak izan ditu bere ekintzen ardatz nagusiak, bigarren hontan arte lanak ere barne direla.

Kanta zaharrak biltzeko, beharrezko iduritzen zitzaion lehenik herriliteraturako bertsogintzaren legeak ezagutzea eta *Metria Vasca* (1918) zeritzana burutu zuen. Historia lanetan Karmelo

Etzegaray maisuetarikotzat hartu bazuen ere, bertsolaritza kontuan ez zion jaramonik egin. Etzegaray erromantikoko bere gaztaroan hain beste bertso eder egin bazituen ere, bertsolaritza ez zuen maite eta kontra paratu zenez, literatura jenero horrengatik gogorak idatzi zituen. Don Manuelek ordea, Euskal Herriko kronistaren alde horiek kontutan hartu gabe, historia partean kasu egin zion baina ez herri-literaturan. Jarrera honekin bide berri bat ideki zuen eta kulturaz jantziak zirenen artean giro berri bat zabaldu zuen, ahozko literatura tokatzen zitzaion mailerata jasok *Literatura oral euskérica* (1935) argitaratzeaz, era berean orduko eragilerik bizkorrena zen Aitzol bera horren alde bultzatuz eta lehen bertsolari txapelketak antolatzen lagunduz. Gaur, eskerrak don Manueli, bertsolaritzak bestelako irudi bat du jendearen aurrean eta gure kulturaren fenomeno jatorizat dugu bapateko bertsogintza hori.

Teoria burutzeko beharrezkoa zitzaion usariozko praktikak ezagutzea eta bilketa lan ederrik ere eskaini zigan bertso kontuan, *Anuario de Eusko-Folklore* (1933) delakoan bere bilketazko "Gabon kantak" argitaratuaz. Horien artean, gainera, erresuma tipi batean soilik ezagutzen ziren "Marijesiak" adierazi zituen. Bestalde, Gabon kanta zaharren egituretan oinarriturik, berberak idatzi zituen, *Iesu Aurraren bizitza* (1948) eskaini, eta nere uestez poesiagintzarako era eredugarriak markatu zizkigun lantxo horrekin.

Herri-literatura bildu, ikertu, ereduak finkatu eta hortik aurrerantzerako bideak markatzearekin batean, don Manuelek, historia gaiak ditu onduen sa-

kondu dituenak. Bere jaioterriaz egin zuen lanean, *Del Oyarzun antiguo* (1959), erakutsi zigan aintzinatik gure egunotarako historiaren ildoak nola jarraitu behar den, baina horrez gainera, edo era berean, gure historiaren puntu korapilotsuenean giltzak eskaini zizkigun *Bol. R.S. Amigos del País* -en argitaratu zuen "Escollas de nuestra Historiografía" (1971) lanarekin.

Historiaren barnean, Arte gaiak bereziki ditu. Hor, F. López del Vallado-ren bideetatik aurrera urrats ederrik eman da, batez ere Erdi Aroko arteaz. Gipuzkoan, erromanikorik apenaz ezagutzen zen Leintz inguruetatik aparte eta berak argitaratu zituen beste zati asko. Gainera, A. Arrazolari Pizkunde garaiko egiterakoan eman zizkion laguntzez gainera, Greco-ren bi lauki ere aurkitu zituen, bata Leintz Gatzagan eta bestea Iraetan, eta Aintziaren eskolakoak bezitatu.

Foru eta herrietako ordenantza ere aski lan egina du; bai euskaraz eta bai erdaraz, horiek ohizko lege zaharren inguruti sortuak zirenez.

Kardaberaz taldea bere lan guziak argitaratzeari emana da eta jaraipeperako Diputazioaren laguntza izango omen du. Hala behar ere, hainbeste aldizkaritan sakabanaturik daudenak bildurik obra batean agertzeko. Gizona bere zituetatik ezagutzen da eta obra guziak agertzen emando du bere neurri osoa, eta don Manuelena ezta txikia izango.

Juan SAN MARTIN

El pasado día 21 de marzo don Manuel Lekuona recibió la medalla de oro y el título de Hijo Predilecto de Guipúzcoa por

parte de la Diputación Foral, y dos días más tarde fue objeto de un merecido homenaje por parte de la Sociedad de Estudios Vascos, de la que don Manuel fue fundador, y a dicho homenaje se siguieron numerosas instituciones, entidades culturales y personalidades del país.

Don Manuel, al filo de los noventa años aún sigue trabajando ejemplarmente en temas culturales del país. Además de escribir con sus deberes sacerdotales y escribir en buena medida en la versión castellana de la Liturgia, los temas preferentemente ha desarrollado en su nuel han sido el de la recopilación de poesías populares, su estudio y fijación de las reglas fundamentales de sus estilos, las técnicas y conceptos plásticos. Trabajos por los que se dieron a conocer "Marijesiak" del entorno de Guernica, que, por otro lado, valoró y difundió el valor del bersolarismo que gracias a su trabajo dio comienzo a la organización de los campeonatos del bersolaris que con su éxito se celebran periódicamente.

Otra importante faceta en la vida de don Manuel ha sido el cultivo de la investigación histórica, y dentro de ella, muy particularmente, la historia de los orígenes del románico guipuzcoano, pero sobre todo el descubrimiento de las obras del Greco. Su trabajo sobre la historia local *Del Oyarzun antiguo* propicia sus conocimientos de la historia de las épocas y movimientos culturales que vivían el país y su trabajo "Escollas de nuestra Historiografía" (publicado en el *Bol. de la R.S.V. de los Amigos del País*) ofrece un sin fin de pistas a seguir para los interesados en las investigaciones históricas.

La etnografía, historia y literatura vascas debían mucho a don Manuel Lekuona y desde estas páginas nos sentimos con mucho gusto al merecido homenaje

Kultur alienazioneaz

Kulturaz kolonizatutik dagoen persona bat, bere egiazko Naturalezari buruz aliatu dagoen persona bat da. Askotan erdaratiko hitza den alienazionea marxismoaren filosofian erabiltzen da, eta hortikotz etorkiz alemanoa da. Marxek erabiltzen zuen termino *Entfremdung* da. Hitz hantuz horrengatik erraz ikhusten dugu nola lehen alienazionea bethi menperatu herri baten alienazionea den. *Entfremdung* alemanaz, kanpotaritzea, bertzeiztezea, arrotzea bera, entfremduta dagoen persona, kasta, klase edo herri bat... bere etorkiko izakiera galdu duen herri bat da, bortsaz kanpotaritu egin duen herria da. Halakotz alienatuta dagoen herria bethi... nolabait *erhorturik* dagoen gizatalde bat da. Eta *erhoak* direla mirrikiek deklaratzan dituen personak bezala bethi menperatzaile-mirrikiek eta mixtroek hunela direla deklaratu dute, ezin ere eskubide sozialik eduk ez dezantat. Etanola erho diren personak erhortegietan sartzen diren bortsaz, eta hor hilak bai liren bezala mundutik alderatuta, giza-eskubideengabe miriko experimentatzaileen eskutian eta laboratorietan kurrinak bezala traktatzen bait dira, eta hunelako personan burfuingetan operazioe ta tratamendu ankerrenak egiten bait ziren, hauietan burfuinaren partheak kollarakada atheratzen, gorphutuz kallosua ebakiten, elektroshoeken torturapean toletzen. Hunelako experimentu salbaiak gizakumeetan ez dira izan nazien monopolioa, aitzitik hunelako experimentu salbaiak European erhortegietan eginak dira, eta batzuetan ere orain ere pairarazten dira. Baina nola hor sartu dituzten personak *erhoak* bait dira, ez dute heien personan kontra egiten diren experimentu salbaien kontra protestatezko eskubiderik, eta protestatzen ba dute, heien protesta berriro beren erhoaren frogak direla eraitzen da, halatan menperatu herrik beren eskubideak reklamatzan ba dute, terroristak dira.

Herrien artean gaur egun ere, Kybernetikaren inguruan giza-burufuiketa nola ekhiten eta agitzen duen hauemaitetan ikusi dugunetz, giza talde bati bere osotasunean egin dakidikeon krimen handiena kultur alienazionearen krimena da. Eta hunelako krimen bat praktikitzen da, herri bati berea ez den erdal-hizkuntza bat statuaren legislazionearen bidez impositzen

zaionean. Edozein herrik bere personalitate nahi duen araurera desarrolatzeko eskubidea daduka, eta ezin ere erdal statuk ez daduka herri bat eskolaren bidez erdalteko eskubiderik, eta hunelako krimena egiten denean ethnophonia izenezatzen den krimena praktikatzan da. Eta krimen hauk Monakheko Juddamenduk danik internazionalki kondemnatuturik dagoza, nahiz eta gaur egun ere, geuk ere hunelako krimen salbaiak pairatzen ditugunarren.

Euskaldunen kontra aspaldidanik Statu espainolek eta frantsesek hunelako krimena praktikatu dute, eta gaur eguneko euskaldunik asko hunelako ethnophoniaren produktus mesprezagarrira baizik ez dira. Eta nola menperatu herrik bethi beren menperatzaileen kultura onhartzan bait dute, eta munduan bakharrik eta soilik dagoen kultura gora dela ueste bait dute, halatan ere euskaldunek espainiar eskolaren bidez beren kultura osoa hartu dute, eta ez dakite kultura huntuatik kanpoan pentsatzen, eta hunela kulturaz kolonizatu dagoen zentral Afrikako herriak bezalakoak dira. Huni buruz epokha batetan non Euskalherria ia ezin ere egiazko kultura sartzen ez zen, baserriarrak kulturagabeko izan zitezken; baina ez zegoen kanpoko kultura ethnophono baten bidez alienaturik. Gaur egunean, ordea, erdal eskolaren bidez euskal mikro intelektualak, bethi espainiar kulturaren pithekoak dira. Eta batez ere, nola Euskalherria seminarioko bethi Euskalherriaren desnazionalizatutzaren mintegiak izanik bait dira, kultur-kolonizatuzaren egokera hau batez ere argi ta garbi agertzen da Euskalherriko seminariotetan barna pasatu diren ex-seminaristak gan. Gure seminariasta-ohi hauiek euskal kulturaren, espainolar kultur skhemak eta referentzien sistemuak saritzen dituzte eta beren ingnorarantzia kapitalaen, munduan dagoen kultura gorena, ia ia bakharra erdal kultura dela ueste dute. Baina euskal mikro intelektualak hoiak beren kultur-gintzaren bidez Euskalherria beren izkribuez desnazional-

zatzen dute, hunen egiteko euskara erabil dezatenarren.

Erdarren referentzien sistema euskaldunetara impositatzea Natura kontrako krimen bat da, eta hunelako krimena beren buruan praktika ez dezaten edozein herrik ba daduka eskubide guztiak, bai eta bortsaz erabiltzearen eskubidea ere. Baina oso txarra da, gaur egunean Euskalherria gerbatzen dena, nola jadanik alienatuta dagoen mikro intelektual batzuek, batez hunelako erhorteria kultur-ezaren ondorioa ha da, herri osoari beren ingurutzaren kanonak impositatu nahi ba derazkiozte. Eta orain Euskalherria erdaldundu (nahi eta euskaraz dakitenagatik) diren politikoko dirigente ignorantzia hoin handia da, non hunelako patriota ignoranteak alienazionearen gaxotegetian lan egiten eta experimentatzen duten psykhiatrok bezalakoak diren. Euskal kulturaren erdalteize hauiek kultura ari izan nahi dutenent, bethi erdal kultura alienatzailea ekharten dute eta ez dakite berheizten zer den kultura universalra, eta zer den gatzelarazko psykhiatrok ekharten deraukuten menperakuntza anti-nazionala. Mundu osoan seminarista bethi mikro intelektualak izaiten dira, eta Euskalherria ere hunelakoak dira.

Federico KRUTWIG SAGREDO

Un hombre culturalmente colonizado está a la altura de una persona alienada. En realidad, el término tan empleado de alienación en la filosofía marxista, es una traducción de la palabra alemana *Entfremdung*, que por principio significa "extranjización". Es decir, "entfremden" es hacer que una persona sea extraña... extranjera a sí misma. Se trata pues, de un término cuyo origen está justamente en la extranjización, en la colonización cultural que sufre un hombre o un pueblo, al que se le mete forzosamente todo un sistema de referencias, que no es el propio, sino el de la potencia colonizadora. Una persona colonizada culturalmente es un alie-

nado, que ya no tiene personalidad propia, sino que es un instrumento al servicio de esta potencia. Justamente, los más modernos estudios sobre el funcionamiento del cerebro, nos muestran que descubrir cuán grande es el crimen de la alienación cultural. Es aún mucho de agradecer todo ese tipo de experimentos desgraciados que muy silenciosamente y sin que nosotros hayamos dado toda la necesaria preparación, se han dado practicar los llamados psiquiatras en los hospitales de alienados, a los que se les sometido en nombre de la ciencia médica, a toda una serie de experimentos, que desde el arrancarles partes de la masa cerebral con cucharillas, hasta el corteo del corpus callosum, etc., de acuerdo a lo que convertía a seres humanos en objetos de experimentación "inferiores" a otros seres humanos. Y lo que hay que saber es que esas manipulaciones de seres humanos efectuado los "muy morales médicos" en los hospitales psiquiátricos, sobre indios, sobre personas a las que previamente se les declararon "locos" para que no puedan defenderse, se defendían contra la iniquidad de una honorable profesión de los médicos, se convertían en un monopolio de los crímenes médicos de todos los países "civilizados" que se ha algo parecido es lo que se efectúa en un pueblo, en vez de permitirse el uso de su propia cultura, se le impone una cultura extraña, a través de la lengua oficial del estado opresor. También este crimen, el etnocidio, está condenado desde los juicios de Munich, pero nos basta recordar mirada para ver que también del crimen de partes se practica el crimen del etnocidio cuando se niega a las lenguas propias, es decir, las únicas nacionales de un pueblo. Quiere imponer la lengua del Estado opresor cuando ello la existencia de "Castro" y "nes" racistas y etnocidas. Imponiendo un pueblo por medio de la educación y la cultura un sistema de referencias culturales a un crimen que se practica en el cerebro de cada uno y de todos los miembros de una etnia oprimida, a la cual, como en el caso de los alienados, se le ha declarado "locos", evidentemente, esgrimen los ministros etnocidas para intervenir en el patrimonio de un pueblo.